


**#1 KONPROMISO-TALDEA: EZTABAIDA-DOKUMENTUA.
KONTUAK EMATEA AGINTALDI-PLANEN BIDEZ
#OGPEUSKADI**




Euskadi, 2018ko abenduaren 20a

Eragile sozial guztietatik (hezkuntza, osasuna, hirugarren sektorea, kultura, ekonomia, herritar antolatuak...), politika da etengabeki legitimitatea bilatzeko obligazio saihetsezina daukan bakarra...

– Xabier Barandiaran

KONTU EMATEAREN PRINTZPIOEI BURUZKO ERABAKIA

- Konpromiso honen bidez, kontu-ematearen euskal eredua ezarri duten erakundeen webguneetan partekatu eta argitaratuko den informazioaren egituraren oinarriak ezarriko dira. Ingelesezt, “accountability” da terminoa. Ez dauka itzulpen zuzenik espainolezt; bai, ordea, euskaraz: “kontu-ematea”.
- Egitura horrek herritarrekin kontrastatua izan behar du, elkarlanean, eta ezaugarri hauek izan behar ditu: irisgarritasuna, sinpletasuna eta ulergarritasuna.
- Ez da, soilik, gardentasun-ariketa bat. Konpromiso hau kontu-ematean oinarrituko da, zeinak, oro har hartuta, estatu-, erkidego, foru- edo udal-mailako arauditik datozen obligazioak izan baititzake.
- Ingelesezt “accountability” terminoak islatzen du filosofia bat, erakunde batek hartzen dituen –eta eragile askori eragiten dioten– erabaki politikoen gaineko erantzukizuna onartzearen eta horien inguruan gardena izatearen atzean dagoena.
- Kontuak emateak esan nahi du interes-taldeak komunitatearen interes eta kezkek eratzen dituzten gaien identifikazioan sartzea.



KONTU-EMATEAREN PRINTZPIOAK

- Kontu-ematearen estandarrak nazioartean onartuta daude, eta lau oinarrizko printzipio ezartzen dituzte kontu-ematea gauzatzeko:

INKLUSIOA

Ahots guztiak entzutea, eragiten duten gaietan

INPAKTUA

Definizioa, neurketa eta jarraipena, erakundeen ekosisteman duen eraginari dagokionez

ERANTZUKIZUNA

Gardentasunez, jardutea, Jasangarritasuna bermatzeko

MATERIALITASUNA

Interes-taldeei axola diena ulertzeko eta horiei erantzuteko gaitasuna

- Konpromiso honi heltzerakoan, printzipio bakoitzari nola erantzun behar zaion galdetuko diogu geure buruari. Adibidez: inklusioaren printzipioan, politika publikoen eragina izan dezaketen interes-taldeak izango ditugu, materialtasunaren printzipioak plan, ekimen proiektu eta politikei buruz hitz egingo du, baina baita herritarrenganako entzute aktiboaz ere.

Era berean, erantzukizun-printzipioak hitz egingo digu bai ereduaren jasangarritasunaz, bai herritarrei eman behar zaien feedback-aren kudeaketaz. Eskema honen pieza nagusi gisa, inpaktuaren printzipioa dago; erakundeek jarraipen, neurketa eta kontu-emate bat egin behar dute, beren erabaki eta proiektuek inguru hurbilean eragiteko moduari buruz.

- Dokumentu honetan, agintaldi-plana edo gobernu-plana definitzeko lan-proposamen bat eta kontu-ematearen eredu bat eraikitzeko proposamen bat biltzen dira. Oinarrizko proposamenak dira, helburu dutenak eztabaidan heldu behar diegun elementuak bilduko dituen hasierako egoera bat definitzea.
- Ez da kasu bakoitzean egitura zer izan behar duen definitzea, baizik eta lehen erreferentzia bat moldatzea, dokumentu gisa, eztabaida eta proposamenak bideratzen lagunduko diguna.
- Hau proposatzen dugu: hurrengo saioan, agintaldi-planetarako eta kontu-emate eredurado egitura mota bat balidatzea, eta, geroko saioetan, elementu bakoitzaren edukia definitzea.
- Eztabaida errazteko, proposatzen dizuegu galdetegi labur honetan jasotzen diren funtsezko lau alderdiren gainean lan egitea, gero bilerara eramateko:

FUNTSEZKO LAU ALDERDI:

- **Agintaldi/Gobernu Plana:**
- Proposameneko zer elementuren falta sumatzen duzu, zer gehituko zenuke edo zerk sortzen dizu zalantza gehien?
- Ikuspegi operatibotik, zein dira kontuan hartu beharreko alderdirik garrantzitsuenak, abiaraztea bideragarri egiteko?
- **Ikuspegi operatibotik, zein dira kontuan hartu beharreko alderdirik garrantzitsuenak, abiaraztea bideragarri egiteko:**
- Zure ustez, zer beste elementu izan behar genuke kontuan partaidetzaren eta kontu-ematearen prozesu bat abiarazteko?
- Ikuspegi operatibotik: zer behar dagoela uste duzu prozesu mota hori martxan jartzeko? (prestakuntza, beste baliabide batzuk..)





#OGPEUSKADI

